**Enpresagintza Fakultatea**

Aktualitatea

# Martxan da MUgi Hadi

2010/10/18

MUgi Hadi, Bidasoko Campuseko ikasle, irakasle eta langileek elkarrekin lantzen dugun proiektu bat da; eskola orduetatik kanpo bizitza unibertsitarioa sortzen lagunduko duen ekimena da. Bere misioa honakoa da: Mondragon Unibertsitatea Bidasoko gizartean integratzea, ikasleen parte hartzea sustatzea bizitza unibertsitarioan eta Bidasoa-Txingudiko kultura, kirola eta aisian. Honek ikasleen garapen pertsonalaz gain, MUk Bidasoko eskualdean duen lekua hobetu ahal izango du.

2009-2010 ikasturte amaieratik lantzen eta antolatzen ari da, baina ikasturte honetan hasi da ekintzak aurrera eramaten,
Bost jarduera arlo daude: kirola, kultura, arlo akademikoa, iraunkortasuna eta saski-naskia.

Arlo bakoitzean ikasturtean zehar garatzen joango diren ekintza batzuk zehaztu dira. Ekintza batzuk, unibertsitateko kideei zuzenduta egongo dira, batez ere ikasleei, baina, ez da inor baztertuko; beste batzuk, berriz, kanpora begirako ekintzak izango dira, hala nola, eskualdeko institutuetako edo gazte-elkarteetako agenteekin lankidetza lantzea.

MUgi Hadik, jadanik, hainbat ekintza ditu prest urrirako, hauetako bat: eskualdeko 30 urte baino gutxiago dituzten gazteei zuzenduriko deialdi irekia: elkarteko logoaren definizioa, 150 euroko Kultura-Bonoaz sarituko dena.

Hilabete honetarako beste ekintza batzuk ere antolatuta daude: zineforum formatuan film baten emanaldia, edota Halloween festa (Irungo lehen festa unibertsitarioa; Saroia diskotekaren laguntzarekin).

Egingo diren ekintzetan parte hartzeko, ikasleek bi ordutegi tarte edukiko dituzte:
Asteazken eguerditan: 12:00etatik 13:30etara ikasle gehienek tarte hau libre edukitzen baitute; eta hileko azken ostegunetarako, 12:00etatik 15:00etara, MUgi Hadik ekintzak antolatuko ditu.

Zure parte hartze ere eskertuko genuke.

MUgi Hadi ekimeneko argazkiak:
http://www.flickr.com/photos/enpresagintza/sets/72157624953756514/